

ERANDIOKO EUSKARA SUSTATZEKO IV. EKINTZA PLANA DISEINATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA



KULTURAREN EREMUA

LEHEN SAIOAREN MEMORIA 2017-10-10



NON: Astrabuduko anbulategi zaharra.

NOIZ: 2017ko urriaren 10an, 18:30etan.

PARTE HARTZAILEAK: 7 pertsona; 4 emakumezko eta 3 gizonezko.

EUSKARA ZERBITZUA: Fernando Simón.

AZTIKER: Ekhi Zubiria eta Markel Ormazabal.

1. SARRERA ETA ONGI ETORRIA

Euskara Zerbitzuko teknikariak ongi etorria egin die lan saiora etorri diren lagunei, eta jarraian, Aztikerreko dinamizatzaileek saioaren nondik norakoak azaldu dituzte.

Batetik, lan saioa Erandion Euskara Sustatzeko IV. Ekintza Plana diseinatzeko parte hartze prozesuaren baitan kokatu dute. Prozesuak bi helburu nagusi ditu:

- Erandion Euskara Sustatzeko III. Ekintza Plana baloratu.
- Erandion Euskara Sustatzeko IV. Ekintza Plana diseinatu.

Prozesua iraila eta abendua artean garatuko da, eta parte hartze saioei dagokionean, hauek urria eta azaroan burutuko dira. Urriko saioetan III. ESEP baloratu eta IV. ESEP-k jaso beharko dituen erronkak identifikatzen hasteko lehen hurbilpena egingo da; azaroko saioetan, berriz, erronka hauetan sakonduko da.

Prozesuaren lanak lau eremu nagusiren arabera antolatu dira: Kultura; Hezkuntza; Kirola; eta Merkataritza. Lan saio guztiak irekiak izango dira eta elkarte nahiz norbanakoek edozein eremutan parte hartu ahal izango dute. Honez gain, azpimarra berezia egingo da bai euskalgintza eta bai Erandioko Udaleko sail ezberdinetako langileak (teknikariak eta zinegotziak) saioetan parte hartzeko.

Honela, urriko lan saioen egutegia aurkeztu da:

EREMUA	NOIZ	NON
KULTURA	Urriak 10 asteartea 18:30etan	ASTRABUDUKO ANBULATEGI ZAHARRA
HEZKUNTZA	Urriak 17 asteartea 18:30etan	ASTRABUDUKO ANBULATEGI ZAHARRA
KIROLA	Urriak 25 asteazkena 18:30etan	ALTZAGAKO KIROLDEGIA
MERKATARITZA	Urriak 25 asteazkena 14:30etan	UDALETXEAN

Azkenik, gaurko lan saioan jarraituko den lan eskema aurkeztu dute dinamizatzaileek. Aurkezpenekin batera bi ariketa talde dinamika proposatu dira.

2. EUSKARAREN BILAKAERA ERANDION

Prozesuaren eta lanaren abiapuntutzat "Euskararen bilakaera Erandion. Datu estatistikoaren ustiaketa, 2017" azterlaneko emaitzak erabiliko dira. Azterlana 2017ko maiatza eta ekaina artean gauzatu da eta ondorengo helburuak izan ditu oinarri:

- Erandioko herritarrek duten euskara gaitasuna, lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza edota kaleko erabilera gaur egun zenbatekoa den aztertzea.
- Aipatu ezaugarri hauen bilakaera zein izan den aztertzea (1981etik gaur egun arte).
- Aipatu ezaugarri hauek Erandioren inguruarekin konparatzea, hala nola, eskualdearekin edota Bizkaiarekin.
- Erandioko euskararen inguruko bestelako datuen egoera edo bilakaeraren azterketa (hezkuntza eredua, helduen euskalduntzea-alfabetatzea,...)

Dinamizatzaileek azaldu dute Erandioko udaleko webgunean azterlan guztia irakurtzeko aukera dagoela. Lehen talde dinamika errazteko, ostera, saiora gerturatu diren lagunei azterlanaren laburpen bat banatu zaie.

Azterlanaren emaitzek aurkezten duten errealitatea lau daturen bitartez laburtu du dinamizatzaileak: Euskararekiko jarrera; euskararen ezagutza; hizkuntza gaitasuna; eta euskararen erabilera **[Dokumentuaren amaieran atal hauei dagozkien hainbat datu eta zertzelada erantsi dira]**



Emaitzak eta gako nagusiak aurkeztuta, parte hartzaileak bi taldetan banatu dira eta beren ustetan Erandion euskara lantzeko gaur egungo egoeran dauden AUKERAK eta ZAILTASUNAK zein diren zerrendatu dituzte.

EUSKARAREN BILAKAERA ERANDION

ERANDION EUSKARA LANTZEKO GAUR EGUNGO EGOERAK ESKAINTZEN DITUEN AUKERAK ETA ZAILTASUNAK	
AUKERAK	ZAILTASUNAK
<ul style="list-style-type: none"> - Egungo gazteen artean euskararen ezagutzak etorkizun hurbileko transmisioa errazten du belaunaldi honek seme-alabak izateko aukera egiten duenean. Honek, guraso berri diren edo etorkizun hurbilean guraso izan daitezkeen pertsonekin lan egitea eskatzen du. - Ezagutzaren gaineko egoerak Erandioko udaletik haur, nerabe eta gazteei zuzendutako eskaintza guztia euskaraz egiteko aukera ematen du. - Haur eta gazteek duten ezagutza mailak gainontzeko adin sektoreak animatu ditzake. - Erandioko hainbat auzogunetan, auzo berri edo berrituetan eman diren demografia aldaketek biztanle gazteen ugaritzea ekarri du, eta gero eta ohikoago da kalean gurasoak haurrekin euskaraz hitz egiten entzutea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara eskolan, eremu formalean alegia, jaso izanak gazte askoren artean euskara eremu formal hauetan erabiltzeko ohitura ekarri du; eremu ez formalean ohitura hau ez dagoelarik. - Administrazio lokalaren jarrerak ez du euskara sustatzen laguntzen. Esaterako, Kultura sailak antolatzen edo programatzen dituen ekimen guztiak ez, baina bai ia guztiak gazteleraz dira. - Udalak euskara sustatzeko lidergoa hartzea zail ikusten da, udal ordezkarien gehiengoa erdalduna delako eta euskaraz ez dakielako. - Erandiora orain 40 urte etorritako lagunaren artean, egun adinekoak direnen artean, euskara ikasteko gogo eta behar gutxi atzeman da.

3. EUSKARA SUSTATZEKO III. EKINTZA PLANA BALORATZEN

Erandion Euskara Sustatzeko IV. Ekintza Plana diseinatzeko antolatu den parte-hartze prozesuaren abiapuntua izan nahi du "Euskararen bilakaera Erandion. Datu estatistikoaren ustiaketa, 2017" azterlanak; eta azterlanaren emaitza nagusiek, nahiz parte hartzaileen sentimenera Erandion euskararen egoerak agertzen dituen aukera eta zailtasunen erradiografiak, prozesuaren bigarren urratsa emateko lurzoru komuna osatu nahi dute.

IV. ESEP-ak jaso behar dituen gakoak eraginkorrak izatea nahi bada, aipatutako oinarri hauetaz gain, funtsezkoa da III. ESEP ezagutu eta baloratzea. Ez alferrik, prozesuaren helburuetako bat da hau, eta baita lehen lan saio hauetan egin beharreko ariketa ere.

Horretarako, Fernando Simón Erandioko Euskara Zerbitzuko teknikariak, lan saiora etorri diren herritarrei III. ESEP-aren helburu nagusiak, lan lerroak eta egitasmoak azaldu dizkie, azpimarra berezia eginez **kulturaren eremuarekin** lotura duten aspektuetan.



Aurkezpenaren ostean, parte hartzaileak berriro ere talde txikietan antolatu dira eta egun indarrean dagoen plana baloratu eta plan berria izango denak jaso beharko dituen gakoak pentsatzen hasteko ariketa egin dute. Ondoren plenarioan, talde handian, emandako erantzunak eta egindako ekarpenak konpartitu dira. Jarraian ariketaren emaitzak aurkezten diradaude.

PLANAK JASOTZEN DITUEN HELBURUAK EGOKIAK DIRA?

Parte hartzaileek, oro har, egoki eta ontzat dituzte planaren helburuak, eta kezkek edo kritikak planaren gauzaperari edo jardueren nolakotasunari egiten diete erreferentzia gehiago.

Honela, eta kulturaren eremuari erreparatuz, parte hartzaileek azaldu dute, esaterako, Erandioko udalak kaleratzen duen Kultur Agenda “*beste modu batera antolatu*” behar dela.

“Agendan udalaren jarduerak eta elkarteen jarduerak ezberdinduta agertzen dira, eta elkarteen programazioaren kasuan gainera, agendaren atzealdean agertzen denez irakurleek ez diete behar bezalako arreta eskaintzen.”

HELBURUAK LORTZEKO PROPOSATUTAKO JARDUERAK EGOKIAK DIRA?

Parte hartzaileek eman dituzten erantzunak bi multzo nagusitan antolatu daitezke: komunikazioa eta jardueren gauzapena.

KOMUNIKAZIOA	JARDUEREN GAUZAPENA
<p>Jarduera askori ez zaie behar bezalako arreta ematen. Iragarri egiten dira, gauzatzen dira, baina maiz komunikazioa ez da behar bezala lantzen. Komunikazioa eta zabalpena hobetu behar da.</p>	<p>Jarduera askori ez zaie ateratzen eman dezaketen etekin guztia, ez zaie “errematea” ematen. Hau da, iragarri eta gauzatzen dira, baina hauek gauzatzean “puesta en escena” egokirik ez dutenez, herritar asko ez da egiten den horretaz ere enteratzen.</p>
	<p>Udalaren eskaintza ez da egokia, azpiegiturak eta bitartekoak falta dituelako. Auzogune batzuetan, esaterako Erandiogoikoan, herritarrek eta bereziki haur eta gazteek euskarazko irakurzaletasuna garatzeko aukerarik ez dute ludotekak gabezia handiak dituelako.</p>
	<p>Udalak ez ditu bertako errekurtsioak erabiltzen eta egiten duen eskaintzarekin “kontsumoaren kultura” sustatzen du. Arreta gutxi ematen zaio bertakoari, eta garrantzia gehiegi, berriz, kanpokoari. Beti gaude hau edo bestea antolatzean, antzerkia dela edo hitzaldia, Erandiotik kanpoko erreferentziei begira, eta udalak herrira gonbidatu edo ekartzen dituen jarduerak beti edo ia beti kanpokoak dira. Erandion bertan aukera asko ditugu eta hauei erreparatu beharko genieke</p>

gehiago.

Erandioko **udala eta herriko elkarten arteko harremanaz** parte hartzaile batzuek agertu duten iritziak aipamen berezitua merezi du. Izan ere, hauen ustez: *"Udalak elkarteei bere jardunean jartzen dizkien trabak asko dira, maiz erraztasunak baino gehiago"*.

EUSKARA SUSTATZEKO IV. EKINTZA PLANA PENTSATZEN

Azkenik, eta talde dinamikaren azken ariketa bezala, parte hartzaileei IV. ESEP-k jaso beharko dituen gako edo oinarrietan lehen hurbilpen bat egitea proposatu zaie. Lehen lan saio hauetako azken ariketa honen emaitzek bigarren urratseko lan saioen abiapuntua izan nahi dute, hauetan sakonean landuko baita IV. ESEP.

ZEHARKAKOTASUNA

Euskarari lotutako lanak ez dira Euskara Zerbitzuaren egitekoak soilik, udal barruan gainontzeko sailek ere badute ardura, eta euskarak zeharlerroa izan behar du.

Zentzu honetan, esanguratsua da gaurko saioa kulturaren eremukoa izanik, bertan ez egotea Kultura Saileko ordezkariarik.

Administrazioari dagokionean ere, euskara zehar-lerroko ez izatearen beste ondorio bat da elkarteak administraziora jotzen dugunean departamentu askok "estankoak" diruditela, eta elkarte bat departamentu hauetako batean "erortzen" baldin bada, oso probablea da bertatik ezin irten geratzea, bere jarduera edo asmoak erdizka geratuz.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ADMINISTRAZIOAN

Herri-administrazioetan dauden lanpostuetan jarduteko euskaraz beharrezkoa den gaitasun-maila kontutan hartzen den bezala, udalak politikari edo

udal-ordezkarientzat ere "hizkuntza-eskakizunak" egitea.



EUSKARA ETA EUSKARAREN LANKETA ARDATZ EZ DUTEN ELKARTEEKIN LAN LERROA

Etxe Erregionalekin lankidetza berritu eta garatu

Etxe Erregionalekin lotuta, gaur egungo egoerak agertzen dituen zailtasunez aritzean esan da "Erandiora orain 40 urte etorritako lagunen artean, egun adinekoak direnen artean, euskara ikasteko gogo eta behar gutxi" dagoela. Herritar hauetako asko Etxe Erregionalei loturik daude, eta garrantzitsua da hauen artean euskararekiko jarrera positiboa eta ezagutza minimo bat sustatzea.

Euskara, gainontzeko lurralde eta eremuetan bezala berdin Erandion, bidegurutze batean aurkitzen da. Historian lehen aldiz heldu izatera (lan merkatura sartu, guraso izan...) igaroko den belaunaldi oso batek euskararekiko inoizko ezagutza handiena izango du. Erabileraren datuak, oster, oso bestelakoak dira. Eta honi gehitzen baldin bazaio belaunaldi honek euskararekiko pertzepzioa ere aurreko belaunaldien oso bestelakoa izan duela, garrantzitsua izan daiteke arduraren zama guztia belaunaldi honen gain utzi baino, beste adin sektoreetan ere banatzea. Horregatik, bere garaian

euskara ikasi ez zuten adineko Erandiotarren jarrerak ekarpen handia egin diezaioke testuinguru egoki bat eraikitzeko lanari.

4. ITXIERA ETA HURRENGO URRATSAK

Parte hartzaileen iritzi eta ekarpenak jaso direlarik amaitutzat eman da gaurko saioa. Aurrez, ostera, prozesuko hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu da:

- Batetik, urrian zehar antolatu diren Hezkuntza, Kirola eta Merkataritza eremuetako lan saioak gogorarazi dira.
- Bestetik, azaroan eremu bakoitzeko bigarren lan saio bat egingo da. Lan saio hauek helburu argia dute: IV. ESEP diseinatzeko ekarpenak eta gogoetak egitea, eta horretarako, gorago adierazi bezala, azken ariketaren emaitzetan oinarrituko dela azpimarratu da.



Kulturaren eremuko elkarte eta lagunekin azaroan bigarren saioa egingo da, beraz, eta elkar agurtu aurretik, parte hartzaileekin batera saio horren deialdia adostu da:

AZAROAK 7 asteartea 18:30etan ASTRABUDUN*

**Leku zehatza udal eraikinetako egutegiaren araberakoa izango da.*

Saioa amaituta, Astrabuduko anbulatorio zaharrean, iluntzeko 19:45etan.

5. ERANSKINAK

Akta edo memoriaren bigarren atalean esan bezala, jarraian "Euskararen bilakaera Erandion. Datu estatistikoaren ustiaketa, 2017" azterlana aurkeztean Aztikerreko teknikariak emandako zertzelada edo gako nagusiak jasotzen dira.


Azterlanaren emaitzek irudikatzen duten errealitatea lau daturen bitartez laburtu du dinamizatzaileak: Euskararekiko jarrera; euskararen ezagutza; hizkuntza gaitasuna; eta euskararen erabilera.

EUSKARAREKIKO JARRERA

Euskararekiko interesari dagokionez, Bizkaiko datuak EAEko datu orokorren oso antzerakoak dira. 16 urtetik gorako herritarren % 38k "interes oso handia" duela adierazten du eta beste % 28k "nahiko interes", hau da, herritarren bi herenek (% 66) euskararekiko interes positiboa azaltzen du.

EUSKARAREN EZAGUTZA

Zenbaki absolutuetan, eta bi urtetik gorako biztanleriari dagokionean, Erandioko 5.706 biztanle "elebidunak" dira (% 24,1) eta 6.778 "elebidun hartzaileak" (% 28,9). "Elebidunak" eta "elebidun hartzaileen" proportzio banaketa Bilbo Handiaren oso antzekoa da.



HIKUNTZA GAITASUNA

HIZKUNTZA-GAITASUNA ETA ADINA. 2011 (>5URTE)							
Adina	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Guztira
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
5-9	790	% 73	235	% 22	54	% 5	1.079
10-14	673	% 79	136	% 16	42	% 5	851
15-19	554	% 63	177	% 20	154	% 17	885
20-24	513	% 47	265	% 24	305	% 28	1.083
25-29	521	% 33	455	% 29	583	% 37	1.559
30-34	493	% 23	818	% 37	880	% 40	2.191
35-39	404	% 17	931	% 38	1.105	% 45	2.440
40-44	305	% 15	592	% 28	1.206	% 57	2.103
45-49	193	% 11	361	% 21	1.155	% 68	1.709
50-54	134	% 9	248	% 16	1.143	% 75	1.525
55-59	94	% 6	235	% 16	1.182	% 78	1.511
60-64	90	% 6	192	% 13	1.192	% 81	1.474
65-69	74	% 6	162	% 12	1.083	% 82	1.319
70-74	111	% 11	86	% 9	773	% 80	970
75-79	112	% 12	66	% 7	722	% 80	900
80-84	121	% 20	39	% 6	458	% 74	618
>=85	86	% 19	26	% 6	348	% 76	460
Guztira	5.268	% 23	5.024	% 22	12.385	% 55	22.677

EUSKARAREN ERABILERA

EUSKARAREN KALE-ERABILERA BILAKAERA (2011-2016)		
Urtea	Euskararen erabilera	Oinarria (behatutako solaskideak)
	(%)	Kop.
2011	1,3	2.231
2016	2,0	7.067

EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. ERANDIO, 2016 (EUSKARAZ, %)			
Hizkuntza	Auzoak		
	Altzaga	Astrabudua	Erandiogoikoa
Euskaraz	1,4	0,5	10,2
Gaztelaniaz	98,3	99,5	89,8
Beste hizkuntzetan	0,3	0,0	0,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	2.984	3.309	774

